## In Memoriam

Jar itzan, ezbeharren zerrendaren
buruan, jaoitzean negarrik
egitera ausartuko ez diren haurrak
hilzorian matxinatu ez diren herriak.

Idatz izan, alferrikako gerletan
bizia,-besterik ezin eta-
galdu zuten izengabeen izenak
hilei izena lapurtzen dietenena.

Utz itzan, inon tokirik balego
azkenik, pare bat orri hutsik
bizitza heriotzaz, heriotza obraz
ederrago egin dizkigutenen oroitzan.

## Batzuetan Arratsaldean

Batzuetan arratsaldean
banku batean eseritzen naiz
etxeko atarian
baso bat ardo eskuan
denbora nola doan begiratuz.

Nere pentsamendurekin
pasatu zait eguna eta
ezin naizela kexa
pentsatzen dut azkenean
orduan ardo pixka bat edaten dut.

Halako batean txakurrak
belarriak altxatzen ditu
honela adieraziz
gure laguna heldu dela
eta korrika hara doa bere bila.

Lasaitasunak inguratzen nau
eta egunari amaiera
ematen hasten gara.

## Maiatzaren Egun Berdeetan

Maiatzaren egun berdeetan
euri-malkoen amoreagaitik
erne dira galtzaileentzako liliak
mendeetan zehar itzalak eho duen eremuan
han non eki-errainu hondarrez elikaturiko
kaden-kalatxoriek bilerak egiten dituzten
han non urrats bakarretan soilik bidea
multiplikatzen den
han non zenbat izarhainbat mezu
gordetzen zaizkien.

## Iragana Eta Geroan

Iragana eta geroan
lehertzen den orain hau
heriotzaraino bizitzen saiatu behar dut.

Ez nuke inoiz orain hau
behin bakarrik biziko dudala, inoiz
inoiz ahantzi nahi.

Heriotza belarrondoan
dantzudalarik biziko dut une hau
nere unea.

Azkenekoa balitz bezala biziko dut
lehenengoa banu bezala biziko.

## Udatzeneko Odak

Udatzeneko larre gorritan, belar lizunen usaiak
ibai ertzean zuri zuriak, urpean haltzen sustraiak
zeru garbian azaldu dira, hegazti bidaiariak.

Errekondoko kare arritan, arantzetan elorriak
lahar tarteko hosto azpitan, masusta gorri gorriak
horbel azpitan zizare billa, dabiltza txantxangorriak.

Iratze lurrak gorritu dira, mendi zokoan ur latsa
zaldi zuriak egarriturik, iturrirako urratsa
haize leunak orraszten dio, lepagaiñeko adatsa.

Gorriz pintatu ditu haizeak, zeru urdiñeko apalak
kattagorriak mamia yanda, hutsik utzi ur azalak
illunsentian pago gaiñetan, lotan daude usapalak.

Txingurri gorriak sartu dira, harri gorrien azpira
negar malkotan bildu erleak, erlauntzetako eztira
negu atarira erori da, usteldutako mizpira.

Bakardadean tristuraz daude, oihan beltzean ezpelak
espazioa malenkoniaz, bete du haize epelak
horbelak hegan banatzen dittu, nostalgiaren txartelak.

## Bihotza Emango Nioke

Bihotza emango nioke orain norbaitek eskatuko balit
gaua da, ordu ezjakin bat, eta telefonoa mutu.

Bizitza emango nioke, behar balu
goibeldura hau konpartitzen lagunduko lidakeenari.
Telefonoa mutu.

Zergatik erretiratzen zarete denok han goizo?
Zu esna egonik, zergatik ez diozu lehioa irekitzen
telefonoari?

Bihotza emango nizuke, badakizu.

## Neguko Hondartzak

Maite ditut gure neguan
hondartza bakartiak
olatuen soinuek babestuta sentiarazten naute
eta itsas haizeak ezpainetan uzten didan gazia
atsegin zait.

Zerua erabat lainotuta egoten da
eta bakarrik ibiltzen naiz, hitz egiten ozenki
hara eraman nauen iluntasuna bertan hustu arte osoki.

Nere txakurrak ere maite ditu neguan hondartzak
oso ongi bait daki
etxeratu baino lehen
berarekin jostatzeko gogoak itzulita izango ditudala.

Maite ditut gure neguan
hondartza bakartiak.

## Bakarkako Lana

Bakarkako lana da bizitza
bakarrik noizean behin
larrosaren bat opa digu patuak.

Begira, mira, desira
dasta dezagun
une batez aserik bidera
lasai itzul gaitezen.

Bizitza bakarkako lana da
baina inoiz edo behin
binaka jartzen gara
argazkiarendako.

## Bideak Eta Kontrabideak

Ekialdera joan nahi nuke
antzinako bidetik
baina eguzkiak mendebaldera narama.

Zainetan barna
bihotz ahituaren kirrinkak entzun ditzaket.

Neguko haizeak
hezurraren hutsak eta hautsak
harrotuko ditu
urrezko dortokak dautzan hilerrian.

## Primaderako Baladak

Hodei illunek eraman dute, negu beltzeko lantua
eguzki printzek laztantzen dute, bortu txuriko mantua
ibar luzean urrundik dator, kuku grisaren kantua.

Soineko berriz berde bizitan, beztitua lur osoa
harri tartean leunki dator, erreketan ur gozoa
zoko gordean xomorro billa, axtarrika ur-zozoa.

Bide ertzeko aritzondoen, itzal etzanak lerrotan
ezkur pipitak sortu berriak, eguzki laztan berotan
okil berdeen kabi zuloak, enbor ihartu geldotan.

Sakan luzean ageri dira, belardi berde garbiak
goizeko intza urretan dauka, eguzkiaren argiak
belar freskotan zuri zuriak, bazkan dabiltza ardiak.

Iturrirako xenda estuan, errenkadan etorria
ura edaten ari da askan, behor andana gorria
ur axalera erori zaie, pago gainetik orria.

Haize freskoak astintzen ditu, basamasusten loreak
sasi ondoko lahar hostoen, berde arteko moreak
arantz artean berrizten dira, tristuraren koloreak.

Egun berria urratu ahala, hiltzen ari da arratsa
errekondoko ur lintzuretan, loretan dago sahatsa
adar hezetan hartu nahi du, udaberriak arnasa.

## In Memoriam

Coloca
a la cabeza del catálogo
de los desastres naturales
a los niños que al nacer
no se atreven a llorar
a los pueblos que no se rebelaron en su agonía.

Escribe después
los nombres de los sinnombre
que perdieron la vida
-¿y qué si no?-
en cualquier batalla iútil
y los de quienes roban su nombre a los muertos.

Deja por último
si queda dónde
un par de hojas en blanco
en memoria de quienes
con su muerte nos hicieron mejor la vida
y con su obra más bella la muerte.

## En Los Verdes Días De Mayo / Maiatzaren Egun Berdeetan

En los verdes días de Mayo
por mor de su llanto de lluvia
florecen las flores póstumas de los vencidos
en la tierra secularmente batida por la sombra
allí donde las gaviotas cebadas por migajas de sol
celebran sus reuniones
allí donde los pasos solitarios
sólo multiplican el camino
allí donde los mensajes ocultos se cuentan por estrellas.

## A Veces Al Atardecer / Batzuetan Arratsaldean

A veces , al atardecer
me siento en el banco
del porche de mi casa
con un vaso de vino entre las manos
y veo cómo el tiempo va pasando.

Al expirar el día
con mis pesamientos
llego a la conclusión
de que no me puedo quejar
y entonces, bebo un sorbo de vino.

En una de éstas el perro
alza las orejas
anunciasndo
la llegada de nuestra compañera
y sale disparado a recibirla.

La paz me invade
y así nos disponemos
a apurar el final del día.

## En El Pasado Y En El Futuro / Iragana Eta Geroan

Este presente que
revienta en pasado y futuro
procuraré vivirlo hasta la muerte.

Jamás olvidaré
jamás, que sólo una vez podré vivir
este presente.

Con la muerte susurrándome al oído
viviré este momento
este momento mío.

Como si fuera el último lo viviré
como si fuera el primero.

**Odas De Otoño /**
**Udatzeneko Odak**

Aromas de lascivas hierbas en los rojos prados otoñales
en la orilla del río las raíces de los alisos, blancura bajo el agua
en el limpio cielo irrumpen las aves viajeras.

A la orilla del río el espino puntea las calizas piedras
las moras enrojecen bajo las hojas del zarzal
los petirrojos buscan lombrices en la hojarasca.

Las tierras del helechal se han teñido de rojo, el riachuelo fluye
un caballo blanco camina sediento hacia el manantial
una leve brisa peina su altiva cabellera.

El viento ha pintado de rojo los estantes del cielo
la ardilla devora una avellana dejando su cáscara vana
en el crepúsculo las tórtolas duermen en las copas de las hayas.

Las hormigas, rojas, se ocultan bajo las rojas pedras
las abejas regresan llorando a la miel del panal
un níspero podrido cae al porche del invierno.

En el negro bosque el boj rumia su tristeza solitaria
el viento templado inunda el espacio de melancolía
y reparte al vuelo nostalgia en tarjetas de hojarasca.

**Playas De Invierno /**
**Neguko Hondartzak**

Adoro las playas solitarias de nuestro invierno
el rumor de las olas me protege, y me gusta
el salitre que la brisa marina deposita en mis labios.

Bajo el cielo encapotado de costumbre
camino solitario, descargando a voz en grito
hasta la última gota de melancolía que me ha llevado allá.

También mi perro adora las playas en invierno
sabe perfectamente que no regresaré
sin haber recuperado las ganas de jugar con él.

Adoro las playas solitarias de nuestro invierno.

**Daría Mi Corazón /**
**Bihotza Emango Nioke**

Daría mi corazón
a quien me lo pidiera
en este instante
la noche marca una hora incierta
y el teléfono no suena.

Le daría mi vida
si lo necesitara
a quien me ayude
a compartir esta congoja.
El teléfono no suena.

¿Por qué os retiráis todos
tan temprano?
Y por qué tú
que no duermes,
no le abres tu ventana
al teléfono?

Te daría mi corazón,
y tú lo sabes.

**Caminos Y Contracaminos /**
**Bideak Eta Kontrabideak**

Yo querría seguir el antiguo
camino hacia el Oriente
pero el sol me lleva hacia occidente.

Resuenan en mis venas
los crujidos
de un corazón fatigado.

El viento del invierno
levantará el polvo hueco
de los huesos en el cementerio
en el que las áureas tortugas yacen.

**Trabajo Solitario /**
**Bakarkako Lana**

La vida es un trabajo solitario
de cuando en cuando únicamente
te ofrecerá el destino alguna rosa.

Para que (iluso vividor de horas fugaces)
la admires, la desees, la disfrutes
y, aliviada tu ansiedad por un momento
al camino retornes satisfecho.

Vivir es, ya lo ves, un trabajo solitario;
de cuando en cuando, sin embargo
nos ponemos de a dos para la foto.

**Baladas de Primavera /**
**Primaderako Baladak**

Negros nubarrones han barrido el llanto del negro invierno
el sol acaricia el blanco manto de las cimas
el angosto valle trae el canto lejano del cuco gris.

Viste toda la tierra su vestido nuevo de verdes vívidos
en los riachuelos el agua fluye dulce entre las piedras
en un rincón escondido el tordo se agita buscando insectos.

Al borde del camino yacen alineadas las sombras del robledal
las pepitas de bellota recién nacidas gozan la caricia cálida del sol
los nidos de los verdes picatroncos horadan los torpes troncos marchitos.

En la vaguada se vislumbran los verdes prados inmaculados
la luz del sol contagia su esplendor dorado al rocío matutino
sobre la hierba fresca plenas de blancura las ovejas pacen.

Por el estrecho sendero del manantial un pardo rebaño
de yeguas en fila india baja al abrevadero
una hoja de haya cae sobre la superficie del agua.

Un viento fresco sacude las flores de la zarzamora
morado sobre verde, las hojas del zarzal junto al arbusto
los colores de la tristeza reviven entre espinas.

La noche muere a medida que irrumpe el nuevo día
empantanado a orillas del río florece el sauce
la primavera transpira ansiosa en sus húmedas ramas.